

**BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA
GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA**

PROBA LIBREA/ PRUEBA LIBRE

KOMUNIKAZIO-EREMUA / ÁMBITO DE COMUNICACIÓN

**EUSKARA ETA LITERATURA
LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA**

2020ko Azaroa / Noviembre 2020

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

**Proba honek hiru atal ditu:**

1. **Gaztelania eta literatura.**
Bertan, irakurriaren ulermena eta hizkuntzaren eta literaturaren ezagutza ebaluatuko dira. Atal honek 5 puntu balio du.
2. **Euskara eta literatura.** Bertan, irakurriaren ulermena eta hizkuntzaren ezagutza ebaluatuko dira. Atal honek 5 puntu balio du.
3. **Idazmena.** Aurreko bi ataletako gai orokorraren inguruko bi testu idaztea proposatzen da: bata luzea; eta bestea, laburra.
Azterketariak testu bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz idatziko ditu. Berak erabakiko du zein idatziko duen euskaraz eta zein gaztelaniaz. Testu bakoitzak 5 puntu balio du.

Hizkuntza bakoitzaren azterketaren emaitza kalkulatu da ulermenaren eta idazketaren arteko batazbestekoa eginez:

- Testuaren ulermenari buruzko galderen puntuazioa (5 puntu)
- Idazmenaren puntuazioa (5 puntu)

* Idazmenean, testu bat euskaraz eta bestea, gaztelaniaz idatzi behar dira. Bi testuak euskaraz edo biak gaztelaniaz idatziz gero, baliogabetu egingo da idatzi ez den hizkuntzaren idazmen atala.

Esta prueba consta de tres partes:

1. **Lengua castellana y literatura.**
Esta prueba evalúa la comprensión de un texto y el conocimiento de la lengua y literatura. Se puntuará con un total de 5 puntos.
2. **Lengua Vasca y literatura.**
Esta prueba evalúa la comprensión de un texto y el conocimiento de la lengua. Se puntuará con un total de 5 puntos.
3. **Expresión escrita.** Se propondrán dos textos, uno corto y otro largo relacionados con el tema general de las dos pruebas. El alumnado decidirá cuál realizará en euskera y cuál en castellano. Se puntuará cada texto con un máximo de 5 puntos.

La puntuación total del examen de cada lengua saldrá de la media de las dos puntuaciones:

- Puntuación de las cuestiones sobre el texto (5 puntos)
- Puntuación de la expresión escrita (5 puntos)

*En el caso de que algún alumno o alumna escriba los dos textos en castellano o en euskara, solo se puntuará uno de ellos, quedando sin puntuación el apartado correspondiente a la otra lengua.



JARRAIBIDEAK

1. Irakurri arretaz testuak eta galderak.
2. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
3. Saiatu galdera guztiei erantzuten.
4. Idazmenaren atalean bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Zuk erabakiko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.
5. Bukatutakoan, idatzitakoa berrikusi eta akatsak zuzendu: erreparatu ortografiari eta puntuazio-zeinuei.

INSTRUCCIONES

1. Leed, con atención, el texto y las preguntas.
2. Intentad contestar todas las preguntas.
3. Al lado de cada pregunta se expresa la puntuación correspondiente.
4. En el apartado de Expresión Escrita se deben escribir dos textos, uno en castellano y otro en euskera. Es necesario decidir cuál se escribirá en euskera y cuál en castellano.
5. Revisad de nuevo lo escrito y corregir los posibles errores. Tened cuidado con la ortografía y la presentación.



1ª PARTE
LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

2020ko Azaroa / Noviembre 2020

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:



El futuro del pequeño comercio

El consumidor que estos días compra por internet no volverá a ser un asiduo de las tiendas de su barrio, pero tampoco prescindirá de ellas. La clave está en lo que estas sean capaces de ofrecer cuando se acabe la pandemia

Martes, 05/05/2020 - 18:52 [Antonio Argandoña](#)



“Nada será igual después del coronavirus -dicen muchos-, pero no sabemos cómo será lo que vendrá después. Sólo sabemos que tendrá un componente tecnológico mucho mayor”. Tienen razón: la pandemia va a cambiar el uso que hacemos de la tecnología y, con ello, el futuro de muchos sectores. Por ejemplo, del comercio local, que está experimentando pérdidas enormes con el confinamiento y la competencia del comercio 'on line'.

Pero el declive del comercio viene de lejos. La globalización trajo productos de otros países que desbancaron a las industrias locales, bajaron los precios y pusieron en dificultades a los pequeños comercios. Los centros comerciales sustituyeron al comercio de proximidad por la variedad de sus ofertas y sus precios atractivos. Y el comercio 'on line' se hizo presente en el móvil o en el ordenador de los hogares, con propuestas atractivas y precios bajos. El coronavirus ha sido simplemente un clavo más en el ataúd del pequeño comercio, al reducir las rentas de muchas familias, alejar a los turistas, acelerar la digitalización de las ventas y confinar a los compradores en su domicilio.



Pero esto no quiere decir que el pequeño comercio vaya a desaparecer. Hace unos días recibí en mi móvil una oferta para comprar aceite de un distribuidor andaluz, que me ofrecía calidad, precio y rapidez en el suministro. Ahora muchas tiendas pequeñas aceptan pagos 'on line', usan portales de compra y prestan servicio a domicilio; los restaurantes, también los de alto 'standing', sirven comidas a domicilio, y todos amplían la gama de sus productos para captar más clientes.

Los problemas del pequeño comercio no vienen solo de la venta 'on line', sino de otros factores, como altos costes de arrendamiento, competencia en las zonas comerciales y cambios en el tamaño y la composición de la población.

En definitiva, el pequeño comercio debe mostrar imaginación y creatividad; sus proveedores deben ser también innovadores a la hora de ofrecerle los medios que necesita para hacer frente a sus retos. Y las autoridades deben replantear sus políticas de edificabilidad, de transportes y servicios, de impuestos y tasas, de forma que consigamos una ciudad sostenible, cómoda, agradable, con buenos comercios a nuestro alcance, sea en la esquina, sea en un almacén lejano.

(texto adaptado)

<https://www.elperiodico.com/es/opinion/20200505/articulo-antonio-argandona-futuro-pequeno-comercio-7951298>



1. Responda a las siguientes cuestiones sobre el texto: (1 punto)

A. ¿Dónde puede estar publicado este texto? Dé dos razones que apoyen su respuesta:

B. ¿Se trata de un anuncio, noticia, reportaje o artículo de opinión?

Argumente su respuesta

2. Expresar en una frase (máximo 2 líneas) el tema central del texto (1 punto)



3. ¿Cuál de estas afirmaciones es correcta según el texto?: (0.5 punto)

- A) La globalización acabó con el comercio local y con los centros comerciales.
- B) Los problemas del pequeño comercio se deben en exclusiva a la venta online
- C) El consumidor no va a dejar de comprar en las tiendas de su barrio
- D) Ahora todas las tiendas pequeñas usan portales de compra y prestan servicio a domicilio

4. En el texto se mencionan cuatro formas en las que el coronavirus ha afectado al pequeño comercio. ¿Puede nombrar al menos dos? (0.25 puntos)

5. ¿Puede explicar el significado de esta frase? “El coronavirus ha sido simplemente un clavo más en el ataúd del pequeño comercio...” (0.25 puntos)



6. a. Defina lo que es un sinónimo: (0.25 puntos)

6. b. Sustituye los términos subrayados por sinónimos, teniendo en cuenta el sentido que tienen en el texto (0.75 puntos)

	SINÓNIMOS
“.. que tendrá un <u>componente</u> tecnológico mucho mayor.”	
“...sus ofertas y sus precios <u>atractivos</u> .”	
“...un clavo más en el <u>ataúd</u> del pequeño comercio,...”	
“...atrajo a un <u>tipo</u> de comercio de mayor nivel, pero...”	



7. En 2020 se cumplen cien años del nacimiento de Miguel Delibes, y 100 años de la muerte de Benito Pérez Galdós. En este listado aparecen 6 títulos de obras literarias, algunas escritas por Miguel Delibes y otras por Pérez Galdós.

Identifique con una X las obras de cada uno de ellos. (1 punto)

	Miguel Delibes	Pérez Galdós
Cinco horas con Mario		
Fortunata y Jacinta		
Episodios Nacionales		
Los santos inocentes		
La sombra del ciprés es alargada		



2. ATALA EUSKARA ETA LITERATURA

2020ko Azaroa / Noviembre 2020

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

IRAKURRIAREN ULERMENA (5 PUNTU)

Irakurri arretaz testua eta erantzun ondoren datozen galderai. Galdera bakoitzaren ondoan dator puntuazioa.



Alboko dendak

Nire auzoko harakinak, egunero behin edo birritan, harategia bakarrik uzten du eta tabernara joaten da pintxo bat jatera. Bere ordu sindikalak direla esaten diogu, txantxetan. Harategia zabal-zabalik gelditzen bada ere, ez du inoiz arazorik izan. Beti dago nor edo nor

dendari begira. Harategira joatea asko gustatzen zait niri: produktu ona dauka.

Atearen ondoan, zurezko eserleku bat dago bezeroak eroso egon daitezen. Harategira ezin zara joan hipermerkatu batera joaten zaren jarrera berberarekin, 'slow' jarrerarekin hobe. Harakinak ez dauka 'Bizum'ik, baina egun batean dirurik ez baduzu, hurrengoan ordain dezakezu. Harategian, beti dago solasalditxoren bat, eta besterik ez bada etxean bakarrik eta asperturik zaudelako, merezi du hara joatea. Ez da ezer berezirik, agian, galderatxo bat, zer moduz, haizea dabil gaur, baina harategi horretan, bakardadeari tranpa egin ahal zaio.

Gaur egun, hurbileko komertzioaren alde ekimen asko egiten ari dira, baina ni ezkorra naiz, eta horrelako dendak desagertuko direlakoan nago; behintzat, guk ezagutu ditugun moduan. Beraz, ideia ona da testigantza uztea. Ez da, gainera, ideia berria: Charles Dickensek 'Antigoaleko gauzen denda' idatzi zuen; Penelope Fitzgeralddek, 'Liburudenda' nobela; Durian Sukegawak 'Gozotegi bat Tokion' eskaini zigun. Dendek leku garrantzitsua daukate literaturan, bai eta zineman ere: 1919an, D.W. Griffithek filmatutako 'Lirio apurtuak' pelikulan, denda bat agertzen da babesleku bezala.

Orain dela oso gutxi, Uxue Alberdi bertsolari eta idazleak ['Dendaostekoak' liburua](#) plazaratu du. Kronika luze horretan, Alberdik Elgoibarko San Frantzisko kalean urteak daramatzan 'Pitxintxu' dendaren -eta dendarien- historia kontatzen digu. «*Nik ordurako hemeretzi, zuk, hoge, ikasketarik ez. Andreak etortzen ziren, señorak, jantziak egiten zenizkien neurrira. Nik brodatu egiten nuen enkarguz: maindireak, musuzapiak, toallak*». Ederra da Alberdiren lana, denda horretatik, kale horretatik, gure azken hamarkadak primeran ikusten dira. Eta, agian, esanguratsuena: geure etorkizuna ere bai.



1.- Testuak dioena kontuan hartuta, esan azpiko baieztapenak Egia (E) ala faltsuak diren. (1 puntu)

(Oharra: Faltsua bada, erantzuna arrazoitu egin behar da, bestela ez da puntuatuko).

	E	F
1.- Harakinak auzuneko jendearengan konfiantza du.		
2. Harategiko giroa hobea da daukan produktua baino.		
3.-Harategia, alboko denda, hitz egiten egoteko leku aproposa da.		
4.-Ordaindu gabe eros dezakezu horrelako dendetan.		
5.-Literaturan eta zinean hurbileko dendek protagonismoa izan dute.		
6.- Dickensek idatzitako literatur lana liburudenda batean gertatzen da.		
7.-Kazetariak uste du denda tradizionalak gure historiaren zati direla.		
8.- Kanpainak egiten dira hurbileko denden alde, bezeroak erakartzeko.		
9.- Horrelako dendak, kazetariaren ustetan, ez dira desagertuko.		
10.- Uxue Alberdik denda bat eta hango saltzaileak bihurtu ditu herri baten historia kontatzen duen nobela bateko protagonista.		



Hauek dira faltsuak:

Zergatik?

**2.- 4. paragrafoan, nortzuk ari dira hizketan kakotxen arteko testuan?
"«Nik ordurako hemeretzi, zuk, hogei, ikasketarik ez(..)" (0,25 puntu)**

- A. Dendako langileak.
- B. Elgoibarreko biztanleak.
- C. Dendara joaten diren bezeroak.
- D. Uxue Alberdi idazlea eta kazetaria.

3.- Zein da "Alboko dendak" testuaren helburua? (0,25 puntu) A.

- A. Hurbileko dendak deskribatzea.
- B. Erosketa ona egiteko aholkuak ematea.
- C. Alboko dendetan gertatzen dena kontatzea.
- D. Hurbileko komertzioari buruzko iritzia ematea.

4. Zein da testuak dioena ondoen jasotzen duen ideia? (0,25) A.

- A. Kalitatezko produktuak denda txikietan baino ez daude.
- B. Haragi ona eta lagunarteko giroa topatuko dituzu etxe ondoko harategian.
- C. Alboko dendek babesa eta kalitatea ematen dizkigute eta gure historiaren parte dira, literaturak erakusten duen bezala. Hala ere, era horretako dendak desagertu egingo dira kazetariaren ustez.
- D. Dendak izan dira, askotan, literatura eta filmetako protagonista. Izan ere, herri bateko historia konta dezakete. Uxue Alberdi idazlearen nobelak ederki azaltzen du herri bateko historia denda baten bidez.



5.-Testuak 4 paragrafo ditu. Laburbildu paragrafo bakoitzaren ideia nagusia (1,5 puntu)

	Ideia nagusia
1. paragrafoa	
2. paragrafoa	
3. paragrafoa	
4. paragrafoa	

6.- Azaldu zure hitzekin azpimarratutako esaldien esanahia (0,75 ptu.)

- (...) Ez da ezer berezirik, agian, galderatxo bat, zer moduz, haizea dabil gaur, baina harategi horretan, bakardadeari tranpa egin ahal zaio.
- Harategira ezin zara joan hipermerkatu batera joaten zaren jarrera berberarekin, 'slow' jarrerarekin hobe.
- «*Nik ordurako hemeretzi, zuk, hogei, ikasketarik ez*»



7. Lotu testuko hitz hauek beren sinonimoekin, adibidean bezala. (0,5 puntu)

	sinonimoak
Ekimena	egurrez egina
Solasalditxoa	negatiboa
Zurezkoa	garrantzitsua
Esanguratsuena	jarduera
Primeran	ederki, bikain
Ezkorra	hizketa labur

8.- Berridatzi testuko esaldi hauek azpian ematen den egituraren arabera (0,5 puntu)

Harategia zabal-zabalik gelditzen bada ere, ez du inoiz arazorik izan.

Nahiz eta

Horrelako dendak desagertuko direlakoan nago; behintzat, guk ezagutu ditugun moduan.

.....**ustez,**



3. ATALA

IDAZMENA / EXPRESIÓN ESCRITA

EUSKARA ETA LITERATURA

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:



Atal honetan, bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Testuak gai berari buruzkoak dira; hala ere, desberdinak dira, bai luzeran, bai testu-generoan. Zuk aukeratuko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.

Baina, **KONTUZ!** Testuetako bat euskaraz idatzi behar duzu; eta bestea, gaztelaniaz. Biak euskaraz edo biak gaztelaniaz idazten badituzu, ez da kontuan hartuko atal hori.

En este apartado de la prueba debe escribir dos textos, uno en euskera y otro en castellano. Los textos tienen que tratar sobre el mismo tema, pero son de diferente extensión (uno corto y otro largo) y de diferente género textual (uno es una lista de consejos y el otro es un artículo de opinión)

Debe elegir qué texto va a escribir en castellano y cuál en euskera. Pero, **CUIDADO**, es necesario escribir un texto en cada lengua. Si los dos están escritos en castellano o en euskera, no se tomará en cuenta este apartado en la puntuación de la prueba.

TESTU LABURRA (5 puntu)

Egoera: Larunbatean, hainbat erosketa egin nahi dituzu. Baina herrian erostea pentsatu duzu, ez duzu merkataritza gune handi batera joan nahi. Gainera, uste duzu bertako dendak bultzatu behar direla.

Egitekoa: **emaila idatziko diozu lagun bati** eta eskatuko diozu zurekin joateko erosketak egitera (azpian dituzu denda batzuk, baina beste batzuk aukeratu ahal dituzu). Azaldu zergatik erosi nahi duzun herrian eta ez merkataritza gunean, zer erosi nahi duzun eta nora joateko asmoa duzun. Irakurri duzun testuko ideak erabil ditzakezu testua garatzeko. Emailak, gutxienez, **90-100 hitz** eduki behar ditu.

LIZARDI LIBURUDENDA



Eskaintza: liburuak, aldizkariak, musika, DVDak, eskolako materiala, testuliburuak, fotokopiak (koloretan), plastifikatuak... Kultura bonoa erabiltzeko aukera.

ALDAMU KONPONKETAK



Oinetako konponketak. Takoi-zolak momentuan jartzen ditu. Kremaileak, aldiz, egunean bertan. Zapatak konpontzeaz gain, giltzen kopiak ere egiten dituzte.

AL RAI



Fruta eta janari denda

MIKEL ARRAINDEGIA



Garaian garaiko arraina

Irudien eta testuen jatorria [http s://gertuago.eus/](http://gertuago.eus/)

TEXTO CORTO (5 puntos)

Situación: El sábado quieres ir de compras. Pero has pensado hacer las compras en el mismo pueblo y no ir a un centro comercial. Además, piensas que hay que apoyar al comercio local.

Tarea: Vas a escribir un email a un amigo, pidiéndole que te acompañe a hacer unas compras (debajo aparecen las fotos de algunas tiendas, pero puede elegir otras más.)

Explique por qué quiere hacer las compras en el pueblo y no en un centro comercial, qué quiere comprar y a dónde tiene intención de ir.

El texto debe tener al menos 90-100 palabras

LIBRERÍA LIZARDI

Oferta: libros, revistas, música, DVDs, material escolar, testos de libros, fotocopias (en color), plastificaciones, Posibilidad de usar el bono cultura.

REPARACIONES ALDAMU

Reparación de calzado, le ponemos las suelas y tacones al momento. Cremalleras en el mismo día. Además de reparar calzado, también hacemos copias de llaves

AL RAI

Frutería

PESCADERIA MIKEL

Pescado de temporada



TESTU LUZEA (5 puntu)	TEXTO LARGO (5 puntos)
<p>Egoera. Gero eta ekimen gehiago egiten ari dira hurbilkeo merkataritzaren alde. Zaila da jendea kontzientziatzea. Hipermerkatuak ala denda txikiak dira hobekak?</p> <p>Egitekoa. Zure iritzia emango duzu: Hipermerkatuetan ala denda txikietan erosi? Zein da hobea zure ustez? Testuak, gutxienez, 200-220 hitz idatzi behar dituzu.</p> <p>Gaia jorrazteko ideia hauek garatu ditzakezu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Hipermerkatuen eta denda txikien abantailak eta desabantailak• Non erosten duzu? Zergatik?• Online erostea.	<p>Situación: Cada vez se están llevando a cabo más iniciativas en favor del comercio de proximidad. Es difícil concienciar a la gente. ¿Son mejores los hipermercados o las pequeñas tiendas?</p> <p>Tarea: Denos su opinión: ¿comprar en hipermercados o pequeñas tiendas? ¿Cuál crees que es mejor? El texto debe contener un mínimo de 200-220 palabras.</p> <p>Para tratar el tema puedes desarrollar las siguientes ideas:</p> <p>Ventajas y desventajas de los hipermercados y el pequeño comercio. ¿Dónde compras? ¿Por qué? Compra Online</p>



IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

TESTU LABURRA (5 puntu) / TEXTO CORTO (5 puntos)

(90-100 hitz/palabras)

.....
.....
.....

5.....
.....
.....
.....

10.....
.....
.....
.....

15.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....



IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

TESTU LUZEA (5 puntu)/ TEXTO LARGO (5 puntos)

Iritzi-artikulua /Artículo de opinión (200-220 hitz/palabras)

.....
.....
.....

5.....
.....
.....
.....
.....

10.....
.....
.....
.....
.....

15.....
.....
.....
.....
.....

20.....
.....
.....
.....



25.....
.....
.....
.....
.....

30.....
.....
.....
.....
.....
.....